VII. ERANSKINA

2021EKO ORDENANTZA FISKALA

BONOAK	**€**
Matrikula	86,58
URTEKOA	
Familiakoa	457,20
Familiakoa murriztua	274,29
Familiakoa murriztua berezia	0,00
Banakako heldua (=> 16 urte)	272,92
Banakako heldua (=> 16 urte) murriztua	163,42
Banakako heldua (=> 16 urte) murriztua	0,00
Banakako gaztea (< 16 urte)	167,42
Banakako gaztea (< 16 urte) murriztua	100,38
Banakako gaztea (< 16 urte) murriztua berezia	0,00
Hileroko kuota	
Familiakoa	38,10
Familiako murrizuta	22,86
Familiakoa murriztua berezia	0,00
Banakako heldua (=>16 urte)	22,75
Banakako heldua (=>16 urte) murriztua	13,62
Banakako heldua (=>16 urte) murriztua berezia	0,00
Banakako gaztea (<16 urte)	13,95
Banakako gaztea (<16 urte) murriztua	8,36
Banakako gaztea (<16 urte) murriztua berezia	0,00
SARRERAK	
Banakako heldua (=> 16 urte)	8,70
Banakako gaztea (< 16 urte)	4,70
Banakako infantila (= <5 urte)	0,00
Taldeak (gutxienez 8) =>16	4,45
Taldeak (gutxienez 8) <16	2,35
5 sarrera heldu	34,70
5 sarrera gazte	17,30
8 sarrera edo gehiago helduenak berehala erabiltzeko, bakoitzeko	4,45
8 sarrera edo gehiago gazteenak berehala erabiltzeko, bakoitzeko	2,35
Dutxarako sarrera	1,20
BESTEAK	

Karneta/pultsera hondatua edo galdua	5,10
ALOKAIRUAK	
Pista osoa orduko	43,20
Pista 1/3 orduko	14,00
Gimnasio aretoa orduko	12,50
Frontoi txikia orduko	3,10
Denboraldiko erreserbetan %50 aurreko instalazioetan	
Takilak urtean	38,80
Padel pista orduko	5,20
Bilera gela orduko	11,05
Bilera gela egun erdirako	22,20
Bilera gela eguneko	34,50
Txapelketa-kirol erakundeei Alokairuak	
Igerilekua: jardunaldi 1/2	225,70
Igerilekua: egun osoa	451,30
Asteburuko igerilekua	674,80
Igerilekua: kale eta orduko	21,85
Rokodromoa: saioa 2 ordu	36,60
Rokodromoa: egun erdia	73,25
Rokodromoa: egun osoa	148,35
Rokodromoa: asteburua	222,55
Pista 1/3 orduko	22,55
Pista osoa: 2 orduko	67,60
Pista osoa: egun erdia	114,45
Pista osoa egun osoa	182,05
Pista osoa: asteburua	312,10
Padel pista orduko	12,50
Gimnasio aretoa orduko	16,00
EREMU TERMOLUDIKOA	
Bazkidetza matrikula	57,70
Hileroko kobraketa indibiduala	20,80
Hileroko kobraketa familiarra	32,30
Sarrerak	
Bazkide heldua 30'	6,10
Bazkide heldua 30' (5eko bonoa)	26,25
Bazkide heldua 90’	9,40
Bazkide heldua 90’ (5eko bonoa)	41,00
Bazkide gaztea 90’	6,10
Ez bazkide heldua 90’	19,50

Ez bazkide heldua 90’(5eko bonoa)	89,50
Ez bazkide gaztea 90’	11,75
Egonaldi gainditua, 15' bakoitza	2,75
IKASTAROAK	
Ikastaroak, hiruhileko prezioak	
Astean saio 1-eko igerilekuko jarduerak	41,20
Astean 2 saioko igerilekuko jarduerak	72,16
Astean 3 saioko igerilekuko jarduerak	81,15
Astean saio 1-eko aretoko jarduerak	45,10
Astean 2 saioko aretoko jarduerak	79,54
Astean 3 saioko aretoko jarduerak	89,52
Jarduera bereziak, 2 saio astean	93,64
Jarduera bereziak, 3 saio astean	124,85
Astean behineko jarduera plusa	29,80
Adinkoen gimnasia	0,00
Helduen gimnasia	72,16
Makil dantza, bazkidea	0,00
Makil dantza (ez bazkide) ikasturte osoa	73,40
Ikastaroak, hileko prezioak	
Astean 2 orduko aretoko jarduerak	34,00
Astean 2 saioko igerilekuko jarduerak	25,00
Astean 4 orduko aretoko jarduerak	64,00
Astean 4 saioko igerilekuko jarduerak	47,00
Ikastaroak, hamabostaldiko prezioak	
Astean 5 orduko aretoko jarduerak	43,00
Astean 4 saioko igerilekuko jarduerak	38,00
Astean 15 orduko aretoko jarduerak (Top kirola)	95,00
Ikastaroak, asteko prezioak	
Astean 15 orduko aretoko jarduerak (Top kirola)	50,00
UDAKO IGERILEKUA	
Bonoa*	
Familiakoa	130,25
Banakako heldua (=> 16 urte)	97,70
Banakako gaztea (6< 16 urte)	61,20
Banakako infantila (= <5 urte)	0,00
Sarrera	
Banakako heldua (> 16 urte)	7,75
Banakako gaztea (< 16 urte)	3,90
Banakako infantila (= <5 urte)	0,00

5 Sarrera heldu	30,90
5 sarrera gazte	15,55
udalekuetarako sarrerak	2,30
* Udako igerilekuko bakarrik denboraldi osorako	
MADALENSORO PILOTALEKUA	
Bazkide	
Saio bat	23,75
Epe baterako erres. Saioko	17,27

*Udako igerilekurako bakarrik denboraldi osorako

MATRIKULA

Elorsoroko bazkidetza matrikula ordaintzetik salbuetsiak egongo dira:

1. % 33tik gorako ezintasuna aitortua dutenak.
2. Bono aldaketak: Banakako bonotik familiakora pasatzerakoan egon daitezkeen lehenengo altak edota bajaldia urtebete baino gehiagokoa izan ondorengoak.
3. 23 urtetik gorakoen lehenengo alta, gurasoen etxe berean bizi eta gurasoak bazkide badira.
4. Udalak Elorsoron antolatzen dituen ikastaroetara datozenen altak. Denboraldiko alta bakarra: denboraldian zehar baja eskatuko balitz, berriro alta ematerakoan ez da salbuespenik izango.
5. Oiartzungo kirol taldea osatzeko jokalari, entrenatzaile, trebatzaile...-en altak. Denboraldiko alta bakarra: denboraldian zehar baja eskatuko balitz, berriro alta ematerakoan ez da salbuespenik izango. Kirol taldeak: Oarsoaldea Igeriketa Taldea, Oiartzungo Saskilagunak, Oiartzun K.E., Powers, Miren Taberna OKE areto futbola, Elizaldetarrak Judo Elkartea, Tximeleta, Honbu-Kenpo, Oiarpe eta Txost.
6. Ikastetxeek Elorsoron antolatzen dituzten eskolaz kanpoko ekintzetara datozenen altak.
7. Termetako matrikulatik salbuetsiak egongo dira lehenengo aldiz zerbitzuan alta ematen dutenak edota bajaldia urtebete baino gehiagokoa izan ondorengo altak.

KARNETA/PULTSERAK

Aurreko karnetak/pultserak gutxienez urtebete duenean, berrikuntza doan izango da

EREMU TERMOLUDIKORAKO SARREREN PREZIOAK

- 5 sarreretako bonoen indarraldia bost hilabetekoa izango da.
- Sarrera denbora gainditzen bada, gainditutako ordu laurdeneko 2,65 € kobratuko da.
- Momentuan erabiltzeko 2 sarrera edo gehiago erosten badira %25eko deskontua sarrera bakoitzean.

IKASTAROAK

- Alta ematean ikastaroa hasita badago, kuotak proportzionalki kalkulatuko dira, ikaslea hasten den hiletik ikastaroa amaitzen den arteko hilabeteak kontuan harturik.

FISIOTERAPIA

- 5 saioko bonoak 5 hilabeteko indarraldia izango du
- 10 saioko bonoak 10 hilabeteko indarraldia izango.

FAMILIA BONOA

- Familia bonoa osatzen dute: guraso eta seme-alabak 22 urte arte.
- Dependentzia duten seme-alabak familia bonoan mantenduko dira, adin hori pasa izan arren.
- Dependentzia duten aurreko ahaideak sartu ahal izango dira familia bonoan, helbide berean erroldatuta badaude eta dependentzia agiria aurkezten badute.

TARIFA MURRIZTUAK

- Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta, Larrialdietarako laguntzen edo Kotizatu Gabeko Pentsioaren onuradun direnei tarifa murriztuak ezarriko zaizkie.

- Tarifa murriztua ezartzeko Udal zergen obligazioetan egunean egon beharko dute familia kide guztiek eta ondorengo baremo ekonomikoa ez dute gainditu (Familiako kide guztien sarrerak kontutan izango dira):

Senide kopurua	Familia errenta garbia* (€ arte)
1	**17.287,56**
2	**25.668,94**
3	**28.530,88**
4	**32.721,57**
5	**41.205,17**
6	**44.169,32**
7	**50.915,31**
8	**57.559,09**

*Urtero deialdia abian jartzean kirol instalazioen erabilpen prezioetan tarifa murriztuen onuraduna izateko kontutan hartu beharreko baremoak, aurreko urteko baremoei ezaguna den azken urteko abenduko KPI-ren igoeraren aplikatuta finkatuko dira.

Errenta garbia kalkulatzeko kontutan hartuko da:

a) Errenta aitorpeneko eredu ezberdinetako honako atal hauek:

- Partikularrak: 109 ereduko (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga) Zerga Oinarri Orokorra hartuko da kontuan.
- Autonomoak: 109 ereduko (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga) edo baliokidea den Zerga Oinarri Orokorra hartuko da kontuan.

b) Errenta aitorpena egiten ez dutenentzat: aurkeztutako familia unitateko kide guztien diru-sarrera guztiak batuko dira eta batuketa horri kenduko zaio: aplikatzeko diren gastu kengarriak eta konturako atxikipenek egiten duten zenbatekoa.

Familia unitateak kontsideratuko dira:

- Etxe berean bizi diren bikoteak.
- Familia liburuko senar-emazte eta 23 urtetik beherako seme-alabak. Banatutako gurasoren batek, berarekin erroldatu gabeko seme-alabak unitate familiarrean sar ditzakete, baldin eta urtearen herena baino gehiago berarekin egoten diela ziurta badezake.
- Familia-kideren batek ezgaitasun aitortza duen kasuetan, kide kopuruari, ezgaitasuna duen pertsona bakoitzeko unitate bat gehituko zaio.
- 23 urtetik gorakoak eta 2022an 23 beteko dituztenak (1999-12-31 baino lehen jaioak) nahiz eta senide eta gurasoekin bizi, familia unitate berezi bezala kontsideratuko dira diru-laguntza hauekiko.

TARIFA MURRIZTU BEREZIAK

Foru Aldundiak baloratutako ezintasuna (%33tik gorakoa) dutela egiaztatu beharko tarifa murriztu bereziak ezartzeko.

- **Aurkeztu beharreko dokumentuak:**

a) Eskaera orria behar bezala beteta eta sinatuta.

b) %33 baino gehiagoko ezgaitasuna dutenek, banakako bonoaren titular direnean, eskaera orriarekin batera honako agiria aurkeztu beharko dute:

- Foru Aldundiaren ezgaitasun ziurtagiria.

c) Familia bonoko bikoteko bi kideek %33 edo gehiagoko ezgaitasuna dutenean, familia bonoaren prezio murriztu berezia aplikatu zaie eta eskaera orriarekin batera honako agiria aurkeztu behar dute:

- Bikoteko kide bakoitzaren Foru Aldundiaren ezgaitasun ziurtagiria

d) Ezarritako muga ekonomikoa gainditzen ez duten familia unitateek, eskaera orriarekin batera, honako agiri hauetatik dagozkionak:

- Elkarbizitza ziurtagiria
- Familia liburua, elkarbizitza agiriarekin bat ez datozen kasuetan.
- Familia unitatean %33tik gorako ezgaitasuna duen pertsona banakako bonoaren titularra ez denean, kide horren Foru Aldundiaren ezintasun ziurtagiria.
- Familia unitatearen kide guztien egoera ekonomikoa egiaztatzen duten agiriak, kasuan kasu (23 urte beteak edota 2022an betetzen dituztenek, beraiena bakarra ekarri beharko dute):
    a) Azken Errenta aitorpena (bateratua ala bakoitzari dagokiona)
    b) Errenta aitorpena egitetik salbuetsita daudenek:
    c) Zerga informazioa jasotzen duen ziurtagiria
    d) Langabezi egoeran 6 hilabete edo gehiago daramatzatenek: Lanbideko ziurtagiria datu ekonomikoekin eta lan-bizitzaren txostena.
    e) Langile autonomoen lanengatik diru-sarrerak izanez gero, “Zenbatespen objektiboa” izenekoaren fotokopia erantsi behar da.

f) Soldatetatik, beste kontzeptuetan eratorrita eduki litezkeen diru-sarreren ziurtagiriak (azkeneko 3 nominen fotokopia) eta lan-bizitzaren txostena.
g) Pentsioaren agiria, hala dagokionean.
h) Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE)-ren onuradun izatearen egiaztagiria.
i) Bananduriko bikoteen kasuan, Errenta aitorpenaz gain, banaketa-sententzia eta hitzarmen erregulatzailea.

TARIFA MURRIZTUAK ETA MURRIZTU BEREZIEN ESKAERA EPEA

Prezio murriztuak edo murriztu bereziak eskatzeko epea, prezioak ezarri aurreko urteko urriak 1-etik azaroaren 10era egingo da.

Tarifa hauek eskatzeko deialdiaren Bandoa iragarriko da Kiroldegiko eta Udaleko iragarki tauletan eta baita udalaren webgunean. Deialdi horri loturiko ebazpenen jakinarazpenak ere bide beretik iragarriko dira.